

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 31. atala

DATA: 2025/02/07

GUREAN

AURREMATRIKULAZIOA

Otsailaren 3tik 14ra aurrematrikulazio garaia da ikastoletan. Familia handitzea gustatuko litzaiguke eta, horregatik, zuen laguntza ere funtsezkoa da. Gure proiektua zabaltzea eskertuko genizueke. Ikastolako ateak beti zabalik daude. Haur Hezkuntza eta Haur Eskolan ikasle berriak izatea garrantzitsua da, baita DBHn ere. Guztion artean, familia sendoagoa, handiagoa eta anitzagoa eraiki dezakegu. Herri Ametsa, ikastola txikia familia handia!



GURE INGURUAN

GOIAZEN 11.0

NON: VILLABONA
NOIZ: OTSAILAK 9

Maitasun, gorroto eta festa abestiak entzungo ditugu aurten ere Go!azen 11 ospatzeko. Telesail honetako protagonistekin ondo pasatu nahi baldin baduzue, asteburu honetan Villabonan duzue aukera.



MUSIKENE BIG BAND

NON: HONDARRIBIA-ITSAS ETXEA
AUDITORIUM
NOIZ: OTSAILAK 7, 19:00



Musikene Big Bandek, Musikeneko Jazz Graduko ikasleek osatua, kontzertua eskainiko du otsailaren 7an, ostirala, 19:00etan, Hondarribiko Itsas Etxea Auditorioan. Ekitaldi honek ikasleek ikastetxean duten prestakuntza-maila handia eta esperientzia praktikoa islatzen ditu.

Anima zaitzte!